



## PLAZAOLA BIDEGORRIAREN LOTUREI BURUZKO MOZIOA

Joan den hilaren 16ean harriduraz irakurri genuen egunkarietan Hernani eta Aldundiaren arteko hitzarmen baten berri. Izan ere, Luis Intxauspe Hernaniko Alkateak eta Marisol Garmendiak Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Diputatuak hitzarmen bat sinatu zuten Hernani eta Donostiako bidegorriaren loturan zeuden hainbat zati konpondu eta egokitzeko. Izatez, eskualdearentzat eta gipuzkoar guztiontzat berri ona dela iruditzen zaigu, eta begi onez ikusiko genuke berri hori, ez balitz Marisol Garmendiaren hitzek sortu diguten ezinegonagatik izango.

Hain zuzen, agerraldi horretan Garmendia PSOEko diputatuak honako hau adierazi zuen, eta hitzez hitz hartuko ditugu bere adierazpenak:

- "Donostia Plazaolako Bide Berdearekin lotzeko proiektua amaituko duen bide hau apustu estrategikoa da Foru Aldundiarentzat "
- "Hernani eta Donostia lotzeko bidea osatuko du, eta, gainera, ibilbide hori Leitzatik pasatuz Irurtzuneraino iristen den Plazaolako Bide Berdearekin lotuko du. Bide hori osatzeko 3 km besterik ez dira falta. Proiektu horri esker **Donostiatik Irurtzunerainoko 75 kilometroko ibilbide bat osatuko da**, zati erabakigarria izanik Buruntzaldeko mugikortasun jasangarri eta osasungarrirako."

Sortzen zaizkigun zalantzak agerikoak dira. Alde batetik, Bide Berdea Donostiarekin lotzeko proiektua amaitutzat ematen duela esaten du diputatu sozialistak. Ahaztu egiten zaio Plazaolako ibilbideko zati ederrenetakoak hortik kanpo gelditzen direla, Lasarte-Oriako lur-eremuetatik pasatzen direnak, hain zuzen ere. Luzaera handiko bi tunel eta ikusgarritasun handiko bi zubiz ari gara, gure udalerriko bisita-erakargarri bihur daitezkeenak bere alde egiten bada, Plazaolako Parkearen proiektuarekin, adibidez.

Susmoa dugu Plazaolako ibilbidea amaitutzat eman nahi duela diputatuak bertatik Lasarte-Oriako eremua kanpo utzita, eta hori argitu diezagun nahi dugu.

Larriak iruditzen zaizkigu Garmendia anderearen adierazpenak, alde batetik, gezurretan ari delako Bide Berdearen Donostiako lotura amaituko duela esaten duenean, izan ere, hori Lasarte-Oriako bidea burutzen bada gertatuko baita, eta bestaldetik, Plazaolako Lasarte-Oriako zatiaren alde ez duelako egiten igaro diren ia 4 urte hauetan, gure herriarentzat funtsezko erakargarri turistikoa izan daitekeenean.

Gogorarazi behar dugu 2015eko Gipuzkoako bidegorri sarearen baitan agertzen direla Oztarango zatiaren bi alternatibak Lasarte-Oria Urnietarekin lotzeko (gehigarrian). Lehena, "txanpinoien tunela" bezala ezagutzen duguna da, eta bestea, honen bide alternatiboa, tunelaren afera desbloketzeko zailtasunak ikusita. Biak egiteke agertzen dira urdinez marraztuta, baina legegintzaldia amaitzear da eta ez dugu mugimendurik ikusi, eta ez dugu egongo denik ere espero, zoritxarrez.

Egiari zor, Garmendia andreak Gipuzkoako Bidegorri Sarearen aldeko apusturik ez du egin Gipuzkoan, eta Lasarte-Oriari dagokionez, are gutxiago. Izan dezagun gogoan Usurbilgo Udalak Atsobakargo lotura burutzea eskatu dionean (Troiaiko trenbide-pasabide aski arriskutsua saihesteko) ezezko borobila jaso duela, era berean Errekaldeko igogailuaren zatia sahiesteko eskatu denean, kostu txikiko obra kasu honetan, biak ala biak lasarte-oriatarren interesekoak ezekoa izan dute.

Aitzakia gutxi ditu Garmendia andreak, diru aldetik soberan izan baitu orain arte inbertsio hauek burutzeko, ia 16 milioi euroko aurrekontuarekin. Aldiz, bere kudeaketa eskasaren ondorioz aurrekontuaren %14 soilik erabili du orain arte, eta hilabete batzuk besterik ez zaizkio geratzen legegintzaldi honi amaitzeko.

Hori guztia horrela, EHBildu taldeak honako erabakia hartzeko eskatzen dio Udalbatzari:

- 1- Marisol Garmendia diputatuaren adierazpenen salaketa egitea, izan ere, Lasarte-Oriako Plazaolako Bide Berdearen zatia alboratu egiten baitu aipatutako adierazpen publikoan.
- 2- Lasarte-Oriako Plazaolako ibilbidearen aldeko apustua egitea eskatzen zaio Marisol Garmendiari, tunelaren pasabidea edota alternatiba desblokeatuta, eta Lasarte-Oriako Udalari inbertsio hori egiteko duen aurreikuspena helaraztea urtea amaitu aurretik.
- 3- Lasarte-Oriarekiko gainontzeko loturen egoera eta burutzeko aurreikuspena bidaltzea
- 4- Alkateak Plazaolako ibilbidearen defentsa egitea diputatuaren aurrean
- 5- Mozio hau Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketa Sailari eta Marixol Garmendia andreaki helaraztea.

Lasarte-Orian, 2018ko azaroak 7